



A K T A

Cuadrilla de Ayala-Aiarako Kuadrillaren **KUADRILLAKO BATZARRAK** eginiko ezohiko bilkurarena

2019ko urriak 30

Laudioko udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 13:07ak direnean, ezohiko bilkurari hasiera eman zaio, lehen deialdian, Encina Castresana Astarloa andrea presidente dela, eta jarraian zerrendatzen diren batzarkideak bertaratuta. M^a Virginia Carcelén García andrea, behean izenpetzen duena, aritu da idazkari-lanetan.

Honako batzarkide jaun-andre hauek bertaratu dira:

Encina CASTRESANA ASTARLOA (EAJ-PNV)
Ander AÑIBARRO MAESTRE) (EAJ-PNV)
Eva MARQUÍNEZ BLANCO (EAJ-PNV)
Andoni RODRÍGUEZ ORÚE (EAJ-PNV)
Maite CORTÁZAR AGÜERA (EAJ-PNV)
Juan José ESCUZA DEL CAMPO (EAJ-PNV)
Gentza ALAMILLO UDAETA (EAJ-PNV)
Iñigo PINEDO VADILLO (EAJ-PNV)
Monserrat ANGULO SOLLOA (EAJ-PNV)
Josune IRABIEN MARIGORTA (EAJ-PNV)
Txerra MOLINUEVO LAÑA (EAJ-PNV)
Alberto ARTETXE VICENTE (EAJ-PNV)
Nuria LÓPEZ LUMBRERAS (EAJ-PNV)
Lamia ARCAS NOGALES (EH-BILDU)
Nagore GOMARA PICAZA (EH-BILDU)
Karmele POBLACIÓN MARTÍNEZ (EH-BILDU)
Iñaki IBARLUZEA ORTUETA (EH-BILDU)
Irene ITURBE ERRASTI (EH-BILDU)
Jon BERGANZA URRUELA (EH-BILDU)
Maitane SALUTREGI GARDEAZABAL (EH-BILDU)
Joseba VIVANCO RETES (EH-BILDU)
Arkaitz SAN JOSÉ MARTÍNEZ (EH-BILDU)
Nerea GONZÁLEZ GARCÍA (OMNIA)
María Dolores MURIEL AROCA (PSE-EE)
David ROMERO CAMPOS (PSE-EE)
Sergio TATO EGUREN (OKONDO AURRERA)

Ez dira etorri, eta ezin etorria adierazi dute, honako batzarkide jaun-andre hauek:

Naiara OTAOLA GONZÁLEZ (EH-BILDU)



Alvaro BARRIOS MEDINA (OMNIA)
Iratxe PARRO UZQUIANO (AIARA BATUZ)

Molinuevo Laña eta Artetxe Vicente jaunak eta Irabien Marigorta eta López Lumbreras andreak 13:09an direnean eta gai-zerrendako 2. puntuari ekingo zaionean sartu dira. 13:20ak direnean, Añibarro jaunak alde egin du; zehazki, gai-zerrendako 6. puntua bukatzeaz dagoela. 13:30ean itzuli da, gai-zerrendako 7. puntuari ekingo zaionean.

Kuadrillako presidente andreak, lehenengo deialdian, 13:07ak direnean, ezohiko bilkura irekita dagoela adierazi du, idazkariak bilera abiarazi ahal izateko quoruma badagoela egiaztatu ondoren, Kuadrillak arautzen dituen Foru Arauaren (azaroaren 20ko 63/1989 Foru Araua) 25. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, besteak beste abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldarazitako Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen (apirilaren 2ko 7/1985 Legea) 46.2.c) artikuluari lotuta. Presidente andreak hasteko agindua eman du, eguneko gai-zerrendaren arabera.

1.- EGIAZTAGIRIAK AURKEZTEA

Presidente andreak jakinarazi du Kuadrillaren osaera-saioan bi batzarkide egiaztatu gabe geratu zirela, eta beraz, gaur aurkeztu beharko dituzte beren egiaztagiriak. Zehazki, honako hauek izan ziren joan den urriaren 11n egin zen Kuadrillaren osaera-saioa bertaratu ez ziren batzarkide jaun-andreak:

Arkaitz San José Martínez (EH-BILDU), Artziniegako Udalak izendatua. Deitua izan eta gero, bere egiaztagiriak aurkeztu ditu.

Naiara Otaola González (EH-BILDU), Okondoko Udalak izendatua. Ez da saioa bertaratu, eta beraz, deitzen den hurrengo osoko bilkuran egin beharko zaio egiaztagiriak aurkezteko deialdia.

Momentu honetan sartu dira Molinuevo Laña eta Artetxe Vicente jaunak eta Irabien Marigorta eta López Lumbreras andreak, 13:09ak direnean.

2.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, AURREKO BILKURAREN AKTAREN ZIRRIBORROA.

Presidente andreak azaldu du akats bat egon dela deialdian eta puntu honi lotuta igorritako agirietan. Horrenbestez, bilkurara bertaratutako batzarkideek erabaki behar dute puntu hau saio honetan bozkatzea bidezkoa den edo azaroko osoko bilkurarako utzi nahi duten. Bozkatzea eta eguneko gai-zerrendan sartzea erabakitzen bada, egokitu egin beharko dira gai-zerrendako gainerako puntuen zenbakiak, ordena korrelatiboari jarraikiz.<



Puntua bozkatzea erabaki da, eta azken saioko akta saio honetarako deialdiarekin batera igorri denez, batzarkideek aho batez **ERABAKI DUTE** 2019ko urriaren 11n egin zen azken osoko bilkurako akta onestea.

3.- AIARAKO KUADRILLAREN DIRU-KUTXAREN ETA 2019KO AURREKONTUAREN EGOERAREN BERRI EMATEA ETA ONDASUNEN ETA ESKUBIDEEN INBENTARIOA EGIAZTATZEA.

Presidente andreak aditzera eman du saio honetako deialdian hiru eranskin gehitu direla, saileko teknikari Ghira Alonsok egindako txostenei jarraikiz. Honako izen hauek eman zaizkie atxikitako agiriei:

II. ERANSKINA: Diru-kutxaren egoera

III. ERANSKINA: Aurrekontuaren egoera

IV. ERANSKINA: Inbentarioa

Presidente andreak honakoa jakinarazi du lehenengo agiriri (Diru-kutxaren egoera) dagokionez: diru asko dago, batez ere ingurumenari dagozkion ordainketak egiteke daudelako. Bigarren agiriri dagokionez, hau da, aurrekontuaren betearazpenari dagokionez, ingurumen saileko fakturen sortzape faltaren isla da. Horri aurre egiteko, hainbat bilera izan dituzte zerbitzuaren enpresa adjudikaziodunarekin ordainketak doitze aldera. Inbentarioari dagokionez, gogorarazi du Kuadrillak bere gain duela Zaraobeko landan dagoen eraikin bat erabiltzeko Aiarako Udalak lagatuko eskubidea, baina itzuli egin beharko zaiola Aiarako Udalari, Kuadrillak ez dituelako bete lagatzean ezarritako baldintzak. Horrez gain, aditzera eman du aurreko legegintzaldian zehar inbentarioan egin diren aldaketa guztiek material informatiko berria eskuratu izanari dagozkiola.

Jarraian, **presidente andreak** hitza eman die batzarreko talde politikoei, parte har dezaten.

Ibarluzea jaunak (EH-BILDU batzarreko talde politikoko ordezkari gisa) galdetu du zergatik den hain handia ondasunen balioa. Azpimarratu du ondasun horiei emandako balioa oso handia dela, eta horretarako arrazoia zein den jakin nahi du.

Jakinarazi zaio inbentarioan jasotako ondasunen balioa eskuratu zenean (fakturan) zeukan balioa zela, ez baitago teknikari tasatzailerik bestelako baliorik emateko. Gainera, balio hori ez da eguneratzen aurrekontu-kontabilitateari dagozkion arrazoiak direla bide, baina, horretarako interesa badago, dagozkion informazio batzordean lan daiteke gaia.

Gai honen inguruan ez denez eztabaidarik sortu, denak jakitun geratu dira.



4.- BATZARREKO TALDE POLITIKOAK ERATZEA ETA BOZERAMAILEAK IZENDATZEA.

Presidente andreak aditzera eman du AJAren 24. artikulua ezarritakoari jarraikiz, dagozkion idatziak helarazi zaizkiola Kuadrillari 2019-23 legegintzaldi honetarako, eta beraz, honako **batzarreko talde politikoak** eratu dira:

1.- Batzarreko EAJ-PNV talde politikoa:

Bozeramailea: Gentza ALAMILLO UDAETA

Kideak:

Encina CASTRESANA ASTARLOA
Ander AÑIBARRO MAESTRE
Eva MARQUÍNEZ BLANCO
Andoni RODRÍGUEZ ORÚE
Maite CORTÁZAR AGÜERA
Juan José ESCUZA DEL CAMPO
Iñigo PINEDO VADILLO
Montserrat ANGULO SOLLOA
Josune IRABIEN MARIGORTA
Txerra MOLINUEVO LAÑA
Alberto ARTETXE VICENTE
Nuria LÓPEZ LUMBRERAS

2.- Batzarreko EH-BILDU talde politikoa:

Bozeramailea: Joseba VIVANCO RETES

Kideak:

Lamia ARCAS NOGALES
Nagore GOMARA PICAZA
Naiara OTAOLA GONZÁLEZ
Karmele POBLACIÓN MARTÍNEZ
Iñaki IBARLUZEA ORTUETA
Irene ITURBE ERRASTI
Jon BERGANZA URRUELA
Maitane SALUTREGUI GARDEAZABAL
Arkaitz SAN JOSÉ MARTÍNEZ

3.- Batzarreko OMNIA talde politikoa:

Bozeramailea: Alvaro BARRIOS MEDINA

Kidea: Nerea González García

4.- Batzarreko SOZIALISTAK talde politikoa:

Bozeramailea: David ROMERO CAMPOS

Kidea: M^a Dolores MURIEL AROCA

5.- Batzarreko AIARA BATUZ talde politikoa: Bozeramailea eta kidea: Iratxe

PARRO UZQUIANO



6.- Batzarreko OKONDO AURRERA talde politikoa: Bozeramailea eta kidea: Sergio TATO EGUREN.

Gai honen inguruan ez denez eztabaidarik sortu, denak jakitun geratu dira.

5.- KUADRILLAKO INFORMAZIO BATZORDE IRAUNKORRAK SORTZEA ETA OSATZEA.

Presidente andreak azaldu du organo horiek eratzeko proposamena egiteko aurreko legegintzaldietan, eta zehazki, aurrekoan, zeuden organoak baliatu dituela. Kide kopurua legeak ezarritakoari jarraikiz proposatu da, betiere Kuadrillako Batzarrean talde bakoitzak duen ordezkartzaren proportzionaltasunetik ahalik eta gutxien aldentuz. Horren harira, 9 kidekoak izatea proposatu du. Halaber, berez organo guztien presidentetza Kuadrillako Presidentetzari dagokion arren, azkenean berak egindako ebazpen-proposamena onestekotan, GIZARTE GAIAK, BERDINTASUNA ETA KULTURA INFORMAZIO BATZORDEAREN presidentetza Dolores Muriel Aroca batzarkide andreaki eskuordetuko dio, horretarako TAOLen 21. artikulua ematen dizkion eskumenak baliatuz.

Azalpenak eman eta gero, **presidente andreak** hitza eman die batzarreko talde politikoei, parte har dezaten.

González García andreak (batzarreko OMNIA talde politikoko ordezkari gisa) adierazi du aurreko legegintzaldian proposatu zuten bezalaxe, bere talde politikoen iritziz, bateratu egin beharko lirakeela hainbat batzorde, batez ere aintzat hartuta saioak lau hilabete behin egingo direla eta batzordeak oso gutxitan biltzen direla urtean zehar. Besteak beste, Ongizatea eta Euskara eta Gazteria Batzordeak batera daitezke, modu horretan eta kontuan hartuta oso gutxitan biltzen direla, gairik garrantzitsuenak jorra ditzaten.

Eztabaida bukatu eta gero, bozkatu egin dute eta bertaratutako gehiengoaren bidez, aldeko 24 botorekin (batzarreko EAJ-PNV talde politikoa 13, batzarreko SOZIALISTAK talde politikoa 2 eta batzarreko EH-BILDU talde politikoa 1), kontrako 1 botorekin (OMNIA taldea) eta 1 abstentziorekin (OKONDO AURRERA), **HONAKOA ERABAKI** da:

IKUSI DIRA Kuadrillei buruzko azaroaren 20ko 63/1989 Foru Arauaren 23. artikulua; AJAren 132. artikulua, Herri Batzarrei buruzko martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauaren lehen xedapen gehigarriari buruzkoa; eta Tokiko Ogasunen Legea.

LEHENENGOA.- INFORMAZIO BATZORDEAK ERATZEA: batzorde bakoitzak **bederatzi (9) kide izango ditu:** 3 batzarkide EAJ-PNVkoak, 2 batzarkide EH-BILDUkoak eta 1 batzarkide gainerako talde politiko edo koalizioetakoak: 1 OMNIA, 1 SOZIALISTAS, 1 OKONDO AURRERA eta 1 AIARA BATUZ.

BIGARRENA.- ORGANOEN BILKUREN MAIZTASUNA: ohiko bilkurak **lau hilez behin** egingo dira, AJAren 134. artikuluan ezarritakoari jarraituz.



HIRUGARRENA.- LEGEGINTZALDI HONETARAKO BATZORDEAK ERATZEA: Onetsi egin da Kuadrillaren 2019-23 legegintzaldirako osaera organikoa . Hartara, jarraian datozen Informazio Batzorde Iraunkorrek eta eskumen- edo funtzio-arloak eratu dira:

1.- PRESIDENTETZA, ADMINISTRAZIOAREN JARDUNA, FUNTZIO PUBLIKOA, KONTZEJUAK, FORU- ZEIN AUTONOMIA-ADMINISTRAZIO ETA BESTELAKO ORGANISMOEN ARTEKO HARREMANAK, OBRAK ETA ZERBITZUAK INFORMAZIO BATZORDEA:

Funtzio-arloak:

- Kontzejuetako eta Kuadrillako gaiak koordinatzea.
- Presidentetzari eta erakundeari aholkularitza-zerbitzua ematea.
- Institutio-ordezkaritza: protokoloa eta harreman sozialak eta instituzionalak.
- Kuadrillako gai orokorrak.
- Gobernu-jarduketa zuzentzea, batzordeak koordinatzea, etab.
- Harremanak Batzar Nagusiekin, Foru Aldundiarekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta gainerako Administrazio eta erakunde publikoekin.
- Babes Zibila.
- Langileak.
- Legezketasuna eta fede publikoa kontrolatzea.
- Aholkularitza juridikoa.
- Gai orokorreki dagozkien kontratazio-espeditentak, beste batzorde batzuen eskumeneko esparru espezifikokoak izan ezik.
- Erregistro Nagusia.
- Argitalpenak: Buletinak, inprimakiak, bibliografiak, etab.
- Kuadrillak beste erakunde batzuetan izango dituen ordezkariak izendatzea.
- Tokiko Administrazioaren Foru Sailarekiko eta haren funtzio-arloekiko harremanak.
- Eskualdearen interesekoak diren bestelako harreman orokorrak Arabako Foru Aldundiarekiko eta Arabako Batzar Nagusiekiko.
- Eskualdearen interesekoak diren harremanak Eusko Jaurlaritzarekiko.
- Bestelako elkarte eta organismoekin eskualdeko interesen inguruko harreman orokorrak izatea.
- Mankomunatatuko Zerbitzuen finantzaketaren analisia eta kudeaketa: eskualdearen intereseko gai orokorrak, baldintzatutako eta ez finantzutatuko zerbitzuak, hirigintza arloko aholkularitza, animazio sozio-kulturala, sustapen ekonomikoa, laguntza.
- Obra eta Zerbitzuen Foru Plana, hala badagokio.
- Mankomunatuta dauden eta mankomunatzea aurreikusten diren zerbitzuetan analisi-, azterketa-, planifikazio-, kudeaketa- eta kontrol-lanak egitea.
- Mankomunatatuko zerbitzu eta obretako kontratazio-espeditentak.
- Langileen espeditentak.
- Legealdian zehar emandako edo organoek zein antolamendu juridikoak esleitutako beste batzuk. Indarreko organoek edo legeriak esleitutako beste batzuk.



2.- OGASUNA, FINANTZAK, AURREKONTUAK, EKONOMIAREN SUSTAPENA, ENPLEGUA ETA BERRIKUNTZA ETA TURISMOA INFORMAZIO BATZORDEA:

Funtzio-arloak:

- Zerga-administrazioa.
- Kontu-hartzailetza eta kontrola.
- Aurrekontuak.
- Kontabilitatea.
- Ondarea.
- Estatistikak eta azterketa ekonomikoak.
- Kontu Batzordeen gainerako ohiko funtzioak eta legeria juridiko-kontableak eta tokiko ogasunen gaineko legeriak esleitzen dizkionak.
- Udalekiko finantza-harremanak.
- Tokiko Administrazioaren Foru Sailarekiko eta haren funtzio-arloekiko harremanak.
- Garapena eta industria-azpiegiturak.
- Kuadrillako inbertsio-plana.
- Eskualdeko sustapen ekonomikoa eta prestakuntza- eta enplegu-plan eta – programak.
- Landa-garapena.
- Berrikuntza.
- Europako laguntzei dagozkien gaiak eta plangintzak.
- Turismoa: Dinamizazio Turistikorako Plana eta Seinaleztatze Plana eta Urteko Turismo Jarduketa Planak gauzatzea, Kuadrillako turismo bulegoak kudeatzea, hala dagokionean, eta abar.
- Legealdian zehar emandako edo organoek zein antolamendu juridikoak esleitutako beste batzuk.

3.- INGURUMENA INFORMAZIO BATZORDEA:

Funtzio-arloak:

- Hiriko hondakin solidoen kudeaketa, kontrola, finantzazioa eta bilketa- eta kudeaketa-zerbitzuaren esleipena, transferentziagunea, gaikako bilketak, Garbigunea eta abar.
- Hondakinak kudeatzeko lankidetzak-hitzarmenak.
- Tokiko Agenda 21.
- Udal-aholkularitza ematea ingurumen arloan.
- Elikadura-burujabetza.
- Neguko bidezaintza.
- Eskualdeko sektore-planak lankidetzan aritzea eta planok garatzea.
- Gune naturalak: fauna eta flora.
- Paisaia eta natura zaintzea.
- Energia berriztagarriak eta energia-eraginkortasuna.
- Garraioak, errepideak eta komunikaziorako bideak.
- Lurraldearen antolakuntza eta Kuadrillari dagokion lurraldearen planeamendua.
- Legealdian zehar emandako edo organoek zein antolamendu juridikoak esleitutako beste batzuk.



4.- GIZARTE GAIAK, BERDINTASUNA ETA KULTURA INFORMAZIO BATZORDEA:

Funtzio-arloak:

- Nagusientzako jarduerak planifikatzea.
- Emakumearen arloko jarduerak antolatzea.
- Esparru hauetako elkarteekin harremanak izatea.
- Berdintasuna: Erantzunkidetasuna, eskualde-plangintza etab.
- Gizarte-sustapena: lankidetzan aritzea oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin eta droga mendekotasunarekin, osasunarekin, familiarekin eta beste hainbat gairekin zerikusia duten foru-zerbitzuekin.
- Eskualdeko intereserako kudeaketa aztertzen duten alorretan txertatuko gaiak aztertzea.
- Aisialdi- eta kultura-ekintzak planifikatzea.
- Esparru hauetako elkarteekin harremanak izatea.
- Jaiak, ekitaldiak eta kirolak.
- Legealdian zehar emandako edo organoek zein antolamendu juridikoak esleitutako beste batzuk.

5.- EUSKARA ETA GAZTERIA:

Funtzio-arloak:

- Aisialdi- eta kultura-ekintzak planifikatzea.
- Esparru honetako elkarteekin harremanak izatea.
- Jaiak.
- Kirolak.
- Eskualdeko intereserako kudeaketa aztertzen duten alorretan txertatuko gaiak aztertzea.
- Euskararen Erabilera eta Normalkuntza Plana.
- Euskalduntzea.
- Euskararen arloko kultur jarduerak antolatzea.
- Gazteria: Gazte Plana, eskualdeko ekitaldiak eta abar gauzatzea.
- Esparru honetako elkarteekin harremanak izatea.
- Esparru honetan, eskualdearen interesekoak diren gaietan koordinatzea.
- Legealdian zehar emandako edo organoek zein antolamendu juridikoak esleitutako beste batzuk.

LAUGARRENA.- KIDEAK ESLEITZEA: Osoko Bilkurari jakinaraztea Kuadrillari helarazitako informazioa, eraturako Informazio Batzorde horietarako batzarreko talde politiko bakoitzak izendatutako kideei dagokienez. Honakoa dio, zehatz-mehatz.

1.- PRESIDENTETZA, ADMINISTRAZIOAREN JARDUNA, FUNTZIO PUBLIKOA, KONTZEJUAK, FORU- ZEIN AUTONOMIA-ADMINISTRAZIO ETA BESTELAKO ORGANISMOEN ARTEKO HARREMANAK, OBRAK ETA ZERBITZUAK INFORMAZIO BATZORDEA: Batzordeburua: Encina Castresana Astarloa.



EAJ-PNV: Titularra: Andoni Rodriguez Orue Ordezkoa: Txerra Molinuevo Laña
Titularra: Gentza Alamillo Udaeta Ordezkoa: Iñigo Pinedo Vadillo

EH-BILDU: Titularra: Joseba Vivanco Retes Ordezkoa: Arkaitz San Jose
Martínez
Titularra: Iñaki Ibarluzea Ortueta Ordezkoa: Lamia Arcas Nogales.

OMNIA: Titularra: Alvaro Barrios Medina Ordezkoa: Nerea González García

SOZIALISTAK: Titularra: M^a Dolores Muriel Aroca , Ordezkoa: David Romero Campos

AIARA BATUZ: Iratxe Parro Uzquiano

OKONDO AURRERA: Sergio Tato Eguren.

2.- OGASUNA, FINANTZAK, AURREKONTUAK, EKONOMIAREN SUSTAPENA, ENPLEGUA ETA BERRIKUNTZA ETA TURISMOA INFORMAZIO BATZORDEA: Batzordeburua: Encina Castresana Astarloa

EAJ-PNV: Titularra: Alberto Artetxe Vicente Ordezkoa: Eva Marquinez Blanco
Titularra: Txerra Molinuevo Laña Ordezkoa: Iñigo Pinedo Vadillo

EH-BILDU: Titularra: Lamia Arcas Nogales Suplente: Jon Berganza Urruela
Titularra: Irune Iturbe Errasti Ordezkoa: Iñaki Ibarluzea Ortueta

OMNIA: Titularra: Alvaro Barrios Medina Ordezkoa: Nerea González García

SOZIALISTAK: Titularra: David Romero Campos Ordezkoa: M^a Dolores Muriel Aroca

AIARA BATUZ: Iratxe Parro Uzquiano

OKONDO AURRERA: Sergio Tato Eguren.

3.- INGURUMENA INFORMAZIO BATZORDEA: Batzordeburua: Encina Castresana Astarloa

EAJ-PNV: Titularra: Iñigo Pinedo Vadillo Ordezkoa: Moserrat
Angulo Solloa
Titularra: Txerra Molinuevo Laña Ordezkoa: Nuria López Lumbreras

EH-BILDU: Titularra: Arkaitz San Jose Martínez Ordezkoa: Karmele Población
Martínez
Titularra: Jon Berganza Urruela Ordezkoa: Joseba Vivanco Retes

OMNIA: Titularra: Nerea González García Ordezkoa: Alvaro Barrios Medina



SOZIALISTAK: Titularra: David Romero Campos Ordezkoa: M^a Dolores Muriel Aroca

AIARA BATUZ: Iratxe Parro Uzquiano

OKONDO AURRERA: Sergio Tato Eguren.

4.- GIZARTE GAIAK, BERDINTASUNA ETA KULTURA INFORMAZIO BATZORDEA: Presidente andreak DOLORES MURIEL AROCA andrearen esku utziko du batzordearen burutza

EAJ-PNV: Titularra: Maite Cortazar Agüera Ordezkoa: Jon Escuza del Campo
Titularra: Nuria López Lumbreras Suplente: Gentza Alamillo Udaeta
Titularra: Monserrat Angulo Solloa Ordezkoa: Iñigo Pinedo Vadillo

EH-BILDU: Titularra: Karmele Población Martínez, Ordezkoa: Naiara Otaola González
Titularra: Nagore Gomara Picaza Ordezkoa: Maitane Salutregui Gardeazabal

OMNIA: Titularra: Nerea González García Ordezkoa: Alvaro Barrios Medina

SOCIALISTAS: sólo la Presidencia de esta Comisión.

AIARA BATUZ: Iratxe Parro Uzquiano

OKONDO AURRERA: Sergio Tato Eguren

5.- EUSKARA ETA GAZTERIA: Batzordeburua: Encina Castresana Astarloa

EAJ-PNV: Titularra: Maite Cortazar Agüera Ordezkoa: Monserrat Angulo Solloa
Titularra: Josune Irabien Marigorta Ordezkoa: Txerra Molinuevo Laña

EH-BILDU: Titularra: Maitane Salutregui Gardeazabal, Ordezkoa: Irune Iturbe Errasti
Titularra: Naiara Otaola Gonzalez Ordezkoa: Nagore Gomara Picaza

OMNIA: Titularra: Alvaro Barrios Medina Ordezkoa: Nerea González García

SOZIALISTAK: Titularra: David Romero Campos Ordezkoa: M^a Dolores Muriel Aroca

AIARA BATUZ: Iratxe Parro Uzquiano

OKONDO AURRERA: Sergio Tato Eguren.



6.- KUADRILLAKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Presidente andreak azaldu du AJAren 35. artikuluan tokiko erakundeak antolatzeari buruz ezarritakoari jarraikiz, Tokiko Gobernu Batzarra sortzea proposatzen duela, aurreko legegintzaldietan bezalaxe. Haren hitzetan, organo hori eratzekotan, bertan 5 alkateak biltzea da asmoa. Zentzu horretan, eskuordetu daitezkeen eskumen guztiak eskuordetuko lizkioke organo horri, eta horrez gain, osoko bilkuraren eskumenak eskuordetzeko proposamena ere egingo luke.

Azalpenak eman eta gero, presidente andreak hitza eman die parte hartu nahi izan duten batzarreko talde politikoei.

González García andreak (batzarreko OMNIA talde politikoaren ordezkari gisa) adierazi du azken legegintzaldietan organo horrek ordezkari-tza handiagoa zeukala, eta batzarreko talde politiko gehiagori zabalik zegoela. Ez du ulertzen aurkeztu berri den filosofia-aldaketa; izan ere, presidentearen proposamenari jarraikiz, organo horretan bi alderdik baino ez lukete ordezkari-tza izango, zehazki, EAJ-PNVk 4 ordezkari eta EH-BILDUK bat. Aintzat hartuta 9 kidera arte izen ditzakeela, uste du talde politiko guztiak egon daitezkeela bertan integratuta. Ez dago pozik ez zaielako deitu hori guztia jakinarazteko, ezta saioan landu diren gainerako puntuen berri emateko ere. Zentzu horretan, ez daude ados proposamenarekin eta kontra bozkatuko dute; izan ere, uste dute azken zortzi urteotako dinamikarekin jarraitu behar dela, eta organo horri ordezkagarritasun handiagoa eman. Hori da bere taldeak defendatu duen filosofia, eta beraz, puntuaren eta azpipuntuen kontra bozkatuko dute, hau da, organoa eratzearen kontra eta osoko bilkuraren eskumenak haren esku uztearen kontra, proposatutako osaera dela eta, ulertzen baitute ez dagoela pluraltasunik. Gainera, esan du puntua korapilatsua dela eta ez dagoela argi zer bozkatuko den.

Vivanco jaunak (batzarreko EH-BILDU talde politikoaren ordezkari gisa) bat dator aurretik esan dutenarekin: organo hori ez da ordezkari-tza-organoa. Aurreko legegintzaldian dibertsitate handiagoa zegoela uste du, batzarreko talde politiko gehiago zeudelako ordezkari-tzako tokiko gobernu batzarrean. Uste du legegintzaldi honetan organo horretan ordezkari-tza ez dauden iritzi gehiago daudela. Azaldu du organo hori 15 egunero biltzen dela erabakiak aztertu, eztabaidatu eta hartzeko. Ondorioz, garrantzitsua da beste iritzi batzuk entzutea, eztabaiden emaitza edozein dela ere. Gauzak horrela, presidentetzari eskatu dio puntua mahai gainean utzi eta proposamena birplanteatzeko, talde politiko gehiago ordezkari ditzan. Hala egin ezean, lehen atalean adierazitako talde politikoak bakarrik egongo dira ordezkari-tza organo horretan. Proposamena aurrera ateratzekotan, kontra bozkatuko dute, presidentetzak atzera egin eta gaia mahai gainean utzi ezean.

Presidente andreak azaldu du 9 kide egon daitezkeela, gehienez ere, organo horretan, eta horrek beste arazo bat dakarrela berekin: erabaki egin behar da zein talde politiko geratuko den kanpo. Horrexegatik, hain zuzen, egin dute proposamen hori. Dena den, esan du aukera dagoela organo horretan ordezkari-tza ez dauden talde politikoei saioetara bertaratzeko gonbita egiteko.



Añibarro jaunak (batzarreko EAJ-PNV taldeko politikoaren ordezkari gisa) esan du aurreko legegintzaldian bera izan zela organo hori batzarreko gainerako talde politikoei ireki zien lehena, Tokiko Gobernu Batzarreko kide izan zitezten. Izan ere, aurreko legegintzaldian, Lasa jaunaren buruzagitzapean, alkatetzarik ez zeukaten taldeak bakarrik gonbidatzen zituzten, baina kide izaerarik gabe. Horrenbestez, ez dira bi legegintzaldiz organo horretako kide izan, legegintzaldi bakarrean baizik. Gainera, ez zeuden talde politiko guztiak ordezkatuta, alkatetzarik gabeko talde politiko kide bakarra OMNIA zelako. Halaber, azaldu du Tokiko Gobernu Batzarrearen osaera ez dela Osoko Bilkuran bozkatzen: legez, alkateari dagokion eskumena da; kasu honetan, presidenteari, organo hau presidentetzari konfiantza eta aholkularitza emateko organotzat jotzen baita. Gainera, funtzionamenduari dagokionez, alkateak baino ez ziren bertaraten bilera horietara, eta gainerakoen asistentzia jasota dago eta kontsultatu egin daiteke.

González García andreak (OMNIA batzarreko talde politikoaren ordezkari gisa) azaldu du denen egiten zutela huts saioetara, eta bera zela saio gehienetara bertaratutako kidea. Horrez gain, gogorarazi du Lasa jaunak gonbita egiten ziela, ahotsarekin, baina botorik gabe. Ondoren, adierazi du 9 kideko Tokiko Gobernu Batzarrean denontzako tokia dagoela, eta Kuadrillari dagozkion batzarreko talde politiko guztiak egon daitezkeela bertan ordezkatuta. Horrez gain, ez du uste egokia denik gai hori Osoko Bilkurara ekartzea aurretiaz eztabaidatu eta komentatu gabe. Gauzak horrela egiten badira, horrek esan nahi du aurretik zegoen akordioaren eta pluraltasunaren filosofia galdu egin dela, eta horregatik kontra bozkatuko dute.

Orain, 13:20 direnean, **Añibarro jauna** bilkuratik irten da.

Vivanco jaunak (batzarreko EH-BILDU talde politikoak) uste du saioetarako bertaratzea garrantzirik gabeko gaia dela, eta aktak berrikusiz egizta daitekeela. Haren ustez, garrantzitsuagoa da alkateen bidezko ordezkartzaren eraginkortasuna aztertzea. Zer ordezkaturiko lukete bost alkate horiek? Beren talde politikoen ideiak? Edo defendatu egingo lituzkete beren udalerrak? Haren aburuz, lehen iritzi ezberdin gehiago zeuden ordezkaturiko, eta berriz ere galdetu du alkate bakoitzak berea defendaturiko duen edo bere talde politikoaren ideiak aurkeztuko dituen. Gauzak horrela, presidentetzari eskatu dio atzera egin eta proposamenaren gaineko gogoetan egin dezan, momentuz mahai gainean utziz. Hala ez bada, kontra bozkatuko dute.

Eztabaida bukatu eta gero, bozkatu egin dute eta bertaratutako gehiengoaren bidez, aldeko 14 botorekin (EAJ-PNV batzarreko talde politikoak 12, –Añibarro jauna bilkuratik kanpo dago–, SOZIALISTAK batzarreko talde politikoak 2), kontrako 11 botorekin (EH-BILDU batzarreko talde politikoak 1, OMNIAk 1, OKONDO AURRERAK 1), kontrako 1 botorekin (OMNIA taldea) eta 1 abstentziorekin (Añibarro jauna), honakoa **ERABAKI** da:

LEHENENGOA.- 2019-23 legegintzaldirako Tokiko Gobernu Batzarra eratzea. Hamabost egunero bilduko da.

**6.1.- OSATU NAHI DUEN TOKIKO GOBERNU
BATZORDEAREN ERAKETARI BURUZKO
PRESIDENTETZAREN INFORMAZIOA.**



Kuadrillako presidente andreak jakinarazi du Osoko Bilkurak Tokiko Gobernu Batzordea eratu duela, eta Kuadrilla hau osatzen duten bost udalerrietako bost alkateak izendatuko direla Kuadrillako Tokiko Gobernu Batzordeko kide gisa, saioaren deialdiarekin batera bidali den ebazpen-proposamenean adierazitako eran. Hauek dira batzarkideak:

Ander Añibarro Maestre
Josune Irabien Marigorta
Gentza Alamillo Udaeta
Joseba Vivanco Retes
Jon Escuza del Campo

6.2.- JAKINARAZTEA, ERA BEREAN, PRESIDENTEARENAK ORGANO HONETAN DITUEN ETA BESTERENGARRIAK DIREN ESKUMEN GUZTIAK ESKUORDETZEKO ASMOA DUELA.

Presidenteak jakinarazi du Tokiko Gobernu Batzordearen (hemendik aurrera, TGB) esku utziko dituela indarrean dagoen legeriak ahalbidetzen dituen eskumen guztiak, eskumenen eskuordetze generiko baten bidez, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen duen apirilaren 21eko 11/1999 Legearen 21.3 artikuluan eta azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora) bigarren xedapen gehigarrian adierazitakoarekin bat.

Adierazitakoa oinarri hartuta, Presidentetza Dekretu hau aurkeztu du:

HAU GERTATU DA.- Cuadrilla de Ayala-Aiarako Kuadrillako Tokiko Gobernu Batzordea eratu da 2019-2023 legegintzaldirako, Kuadrillako Batzarrak 2019ko urriaren 30ean egin zuen ezohiko bileran lortutako akordioaren bidez.

HAU IKUSI DA.- Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 20.1 artikuluan eta Toki erakundeen antolaketa, jarduera eta araubide juridikoaren araudiari buruzko azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuko 35. eta 52. artikuluetan esaten dena, Presidentetzaren eskumenei buruz.

HAU IKUSI DA.- Herri-Administrazioen Oinarriak Arautzen dituen Legearen 23. artikulua ezartzen du Tokiko Gobernu Batzordea honako hauek osatuko dutela: alkateak eta Korporazioko kideen legezko kopuruaren heren bat gainditzen ez duen zinegotzi kopurua.

HAU IKUSI DA.- Herri-Administrazioen Oinarriak Arautzen dituen Legearen 23. artikulua horretan zehazten da Kuadrillako presidenteari dagokiola kideak izendatu eta bereiztea eta horren berri ematea Kuadrillako Batzarrari.



AINZAT HATU DA.- Erakunde honetan entitate hori eratzea ez da beharrezkoa; hala ere, 2019ko urriaren 30ean egin zen ezohiko bileran eratu zen; horrez gain, aintzat hartu da bertako kideak izendatzeko presidentek dituen eskumenak.

AINZAT HARTU DA.- Herri-Administrazioen Oinarriak Arautzen dituen Legearen 23.2 artikulua Tokiko Gobernu Batzordeari egokitzen diola presidenteari laguntzeko zeregina, haren eskumenak bete ditzan, baita presidentek edo beste udal-organoren batek Batzordearen esku uzten dituen eskumenak edo legeek xedatzen dituztenak ere.

Azaldutakoa kontuan hartuta,

HONAKO HAU EBAZTEN DUT:

LEHENENGOA.- Kuadrilla honetako Tokiko Gobernu Batzordeko kide izendatzea, presidentearen agindupean, honako batzarkide hauek:

- Josune Irabien Marigorta andrea (EAJ-PNV batzarreko talde politikoa)
- Gentza Alamillo Udaeta jauna (EAJ-PNV batzarreko talde politikoa)
- Ander Añibarro Maestre jauna (EAJ-PNV batzarreko talde politikoa)
- Jon Escuza del Campo jauna (EAJ-PNV batzarreko talde politikoa)
- Joseba Vivanco Retes (EH-BILDU batzarreko talde politikoa)

Tokiko Gobernu Batzordea Kuadrillak arautzen dituen azaroaren 20ko 63/1989 Foru Arauan eta Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, bai eta aplikagarriak diren gainerako araudiek ere, ezartzen dutenarekin bat funtzionatuko du.

BIGARRENA.- Tokiko Gobernu Batzordearen esku uztea presidenteari dagozkion eta eskuordetu egin daitezkeen eskumen guztiak, gerora horiek handitu, txikitu edo aldatzeko aukerari eragin gabe, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 21.3 artikuluan eta azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora) bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat. Hauek dira eskumenak:

- 1) Zerbitzuak eta obrak zuzentzea, ikuskatzea eta bultzatzea.
- 2) Onartutako aurrekontuaren arabera ekonomiaren kudeaketa garatzea; gastuak xedatzea, bere eskumenen mugen barruan eta indarrean dagoen legeriaren barruan.
- 3) Enplegu publikoaren eskaintza onartzea, osoko bilkurak onartutako aurrekontuaren eta plantillaren arabera; langileak hautatzeko eta lanpostuak betetzeko lehiaketetarako probetako oinarriak onartzea; eta finakoak eta aldirakoak ez diren ordainsari osagarriak banatzea.
- 4) Langileen izendapena eta zehapenak adostea. Eskumen hau ez da lege honetako 99.1. eta 3. artikuluetan xedatutakoaren aurkakoa.
- 5) Alkatetzaren eskumeneko gaietan egintzak kaltegarritzat jotzeko, osoko bilkurari proposamena egiteko ekimena.
- 6) Obra- eta zerbitzu-proiektuak onartzea, horiek kontratatu edo horien emakida egiteko eskumenak baditu eta proiektuok aurrekontuetan aurreikusita badaude.



7) Obrak, hornigaiak eta zerbitzuak kontratatzea, baita administrazio-kontratu bereziak egitea ere, honako kasu hauetan:

- Horren balioak ez duenean gainditzen aurrekontuko ohiko baliabideen % 10.
- Balio zenbatetsiak ez duenean gainditzen sei milioi euroko zenbatekoa.
- Lau urte gainditzen ez dituzten urte anitzeko kontratuak (luzapenak barne), betiere urteko zenbatekoek metatutako zenbatekoak ez badu gainditzen aurrekontuko baliabide arrunten % 10 lehen ekitaldian, ez eta sei milioi euroko zenbatekoa ere.

8) Kontratu pribatuak egitea, Kuadrillaren ondasunen gaineko emakidak esleitzea eta ondarearen arloko legeriaren peko ondasun higiezinak eta eskubideak eskuratzea, lizitazio-oinarriaren aurrekontuak ez duenean gainditzen aurrekontuko baliabide arrunten % 10, ez eta hiru milioi euroko aurrekontua ere.

9) Ondarea besterentzea, lizitazio-oinarriaren aurrekontuak ez duenean gainditzen aurrekontuko baliabide arrunten % 10, ez eta hiru milioi euroko aurrekontua ere.

10) Ondarezko erantzukizun-espedienteak izapidetu eta ebaztea.

11) Legeek berariaz presidenteari aitortzen dizkieten gainerakoak, eta Estatuko legediak edota autonomia-erkidegoetakoak udalerriari esleitutakoak izanik udaleko beste organo batzuei egotzi ez dizkietenak.

HIRUGARRENA.- Kuadrillako Batzordearen eskumenak Tokiko Gobernu Batzordeari eskuordetzeko proposamena jasotzea.

LAUGARRENA.- Aurreko izendapenak eta ebazpen honen edukiaren aurkako ebazpenak ondorerik gabe geratuko dira.

BOSGARRENA.- Tokiko Gobernu Batzordea hamabostero bilduko da, ohiko deialdian, hileko bigarren eta laugarren astearteetan, 13:00etan. Lehen saioa 2019ko azaroaren 11n izango da.

SEIGARRENA.- Akordio hau argitaratzea Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean, AJAren 53.3 artikuluan xedatutakoarekin bat.

ZAZPIGARRENA.- Akordio honen berri ematea interesdunei, batzarreko talde politikoei eta Kuadrillako Batzarrari, egiten duen lehen saioan.

Azalpena amaitu da, eta guztiak jakitun geratu dira.

6.3.- PROPOSAMENA, TOKIKO GOBERNU BATZORDEARI ESKUORDETZEKO HORRETARAKO AUKERA EMATEN DUTEN KUADRILLAKO BATZARRAREN ESKUMENAK.

Presidente andreak, ildo beretik, eta aipatutako organoari eremu kudeatzaileagoa eta dinamizatzaileagoa emateko asmoz, kontuan hartuta Foru Arauak Kuadrillako Batzorderako ohiko bilera gutxi ezartzen dituela, proposatu du Kuadrillako Batzordeak eskuordetzan eman daitezkeen eskumen guztiak Tokiko Gobernu Batzordeari lagatzea.



Azalpena bukatu da eta ez da eztabaidarik sortu; hala, bozkatu egin dute eta **HAU ERABAKI DUTE**, gehiengoz, aldeko 14 botorekin (EAJ-PNVren 12 boto, Añibarro jauna bertaratu ez delako, eta SOZIALISTEN 2 boto) eta aurkako 11 botorekin (EH-BILDUREN 9 boto, OMNIAREN 1 boto eta OKONDO AURRERA taldearen 1 boto). Añibarro jauna abstenitu egin da, saiotik kanpo zegoelako:

HAU IKUSI DA.- Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.4 artikulua aukera ematen du osoko bilkurak, hau da, Kuadrillako Batzarrak, Tokiko Gobernu Batzordearen esku utzi ditzan eskuordetu daitezkeen eskumenak, lege horretan zehaztutako mugekin.

HAU IKUSI DA.- Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 23.2 artikulua Tokiko Gobernu Batzordeari ematen dizkion presidenteari laguntzeko funtzio guztiak eta Kuadrillako beste edozein organok eskuordetzen dizkion gainerako eskumenak.

Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. artikulua ematen dizkion eskumenak erabiliz, osoko bilkura honek, 2019ko urriaren 30ean egindako bileran, honako **AKORDIO** hau hartu du:

LEHENENGOA: - Tokiko Gobernu Batzordeari eskuordetzea osoko bilkurari dagozkion eskumen hauek:

- a) Egintza judizialak eta administratiboak gauzatzea, eta korporazioa defendatzea, udalbatzari dagozkion eskumenetan.
- b) Kuadrillako egintzak kaltegarritzat jotzea.
- c) Kreditu-eragiketak ituntzea, baldin eta ekonomia-ekitaldi bakoitzean metatutako zenbatekoak aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10a gainditzen badu, diruzaintzako eragiketak salbuespentzat hartuta, horiek une bakoitzean bizirik dauden eragiketen zenbateko metatuak aurreko ekitaldian kitatutako sarrera arrunten 100eko 15a gainditzen duenean baitagozkio. Hori guztia Toki-ogasunak arautzen dituen Legean xedatutakoaren arabera.
- d) Legeak presidenteari egozten ez dizkion administrazio-kontratazioak. Inolaz ere ezingo dira eskuordetu ondasun edo zerbitzuen emakiden akordioak, horiek gehiengo bereziak behar badituzte, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.3 artikuluan xedatutakoarekin bat.
- e) Obra- eta zerbitzu-proiektuak onestea, horiek kontratatzeko eta esleitzeko eskumena badute, eta oraindik aurrekontuetan aurreikusita ez badaude.
- f) Ondarearen arloko legeriaren peko ondasun higiezinak eta eskubideak eskuratzea eta entitatearen ondasunen gaineko emakidak esleitzea, baita ondarearen besterentzeak gauzatzea ere, horiek ez direnean presidenteari eskumenak. Halaber, balio historiko edo artistikoa duten ondasunak, haien balioa edozein izanik ere.
- g) Legeek berariaz emandako gainerakoak.

BIGARRENA.- Akordio hau indarrean sartuko da onartu eta hurrengo egunean, Toki erakundeen antolaketa, jarduera eta araubide juridikoaren araudiari buruzko azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuko 51. artikuluan ezarritakoarekin bat. Horrez gain, gerora Arabako



Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, araudi horretako 53.3 artikuluan ezarritakoarekin bat.

HIRUGARRENA. - Akordio hau jakinaraztea batzarreko talde politikoei eta Kuadrillako zerbitzuei, eta Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Momentu honetan, Añibarro jauna bertaratu da, 13:30 direnean.

7.- ACEVINEN AIARAKO KUADRILLAKO ORDEZKARIA IZENDATZEA.

Kuadrillako Batzordeak, 2010eko maiatzaren 26an ospatutako ohiko bilkuran, ACEVINeko (Ardo Hirien Espainiako Elkarte) kide izatea erabaki zuen. Elkarte horretako kideen karguak 4 urterako dira, osatzen duten tokiko korporazioko agintaldiekin bat etorriz. Uztailen Batzorde Nagusian gure ordezkariaren izendapena bidaltzeko eskatu zen, oraindik egin ez den arren, Kuadrilla eratu gabe zegoelako. Hortaz, Kuadrilla Batzordeak Kuadrillako ordezkari bat aukeratzea bidezkoa da, ACEVIn elkarte, aintzat hartuz agintaldia lau urte irauten dituela.

Presidente andreak jakinarazi du EAJ-PNVk JUAN JOSÉ ESCUZA DEL CAMPO jauna proposatu duela hautagai gisa, eta beste talderen batek hautagairik aurkeztu nahi duen galdetu du.

Azalpena bukatu da eta ez da eztabaidarik sortu; hala, bozkatu egin dute **eta HAU ERABAKI DUTE**, gehiengoz, aldeko 15 botorekin (EAJ-PNVren 13 boto eta SOZIALISTEN 2 boto) eta 11 abstentziorekin (EH-BILDUren 9 boto, OMNIAREN 1 boto eta OKONDO AURRERA taldearen 1 boto):

LEHENENGOA.- JUAN JOSÉ ESCUZA DEL CAMPO jauna hautatzea ACEVINeko (Ardo Hirien Espainiako Elkarte) Kuadrillaren ordezkari, eta akordio horren berri ematea elkarte horri.

ARABAKO ADINEKOEN KONTSEILUAN KUADRILLA ORDEZKATUKO DUEN PERTSONA IZENDATZEA

Presidenteak jakinarazi du urriaren 23an Kuadrillari jakinarazi ziotela Arabako Adinekoen Kontseiluaren araudia eta arauak aldatu egin zirela eta, ondorioz, kuadrilla bakoitzak ordezkari bat izango duela bertan. Hala, gure Kuadrillari ordezkari bat dagokio Kontseiluan, kide gisa. Eskatu dute Kuadrillaren inguruko lurraldean adinekoen esparruan inplikazio soziala duen adineko pertsona bat izendatzeko. Horretarako, kontuan hartu beharra dago gutxienez sei hilean behin biltzen dela, orokorrean Gasteizen. Saiotara bertaratzea doakoa da.



Horrez gain, jakinarazi da arloko teknikari Urrejola andreari eskatu zaiola herritarren sektore horri galdetzeko ea norbait interesatuta dagoen, bai eta interesa izan zezakeen hautagai bat proposatzea ere, saio honetan aurkezte aldera. Dena den, oraindik ez dugu erantzunik jaso.

Presidente andreak galdetu du ea talderen batek hautagairik aurkeztuko duen.

Ez da proposamenik egon eta, beraz, **gaia mahai gainean utzi da**, organoak egiten duen hurrengo bileran berriz aztertzeko.

9.- BATZARKIDEEN ESKUBIDE EKONOMIKOEI BURUZKO INFORMAZIOA.

Jakinarazi da 2019ko aurrekontuetan honako eskubide ekonomiko hauek onetsi direla batzarkideentzat:

Batzorde Informatibo, Tokiko Gobernu Batzorde eta Kuadrillako Batzorde bakoitzera joaten den batzarkidearen dieta 60 €.

Batzorde Informatiboetara joaten den Batzordeburuaren dieta, bilera bakoitzeko 120 €.

Tokiko Gobernu Batzordeko eta Kuadrillako Batzordeko Batzordeburuaren dietak, bilera bakoitzeko 240 €.

Kuadrillako organoen bileretara joategatik egiten den ordainketa honetan desplazamendu-gastuak ere sartzen dira.

Kuadrillako presidentearentzat desplazamendu-gastuak zerbitzua emategatik eta bileretara eta beste hainbat ekitalditara joategatik 0,29 €/km izango da eta zerbitzuagatik sortutako otorduak ordainduko dira, indarrean dagoen legeriak xedatzen duen bezala.

Gai honen inguruan ez denez eztabaidarik sortu, denak jakitun geratu dira.

Eta beste gairik ez dagoenez, eta legealdi honi dagokion azken formaltasuna beteta, legez bilkura amaitutzat eman da goian adierazitako eguneko **13:38** direnean. Era berean, Batzordeburu jaunak eta neuk, Idazkariak, izenpetu dugu akta hau; eta horrezaz gain, neuk idatzitako guztia egiaztatzen dut.

PRESIDENTEA

IDAZKARIA

**CUADRILLA DE AYALA
ALAVA**



**AIARAKO KUADRILLA
ARABA**

Sin.: Encina Castresana Astarloa

Sin.: M^a Virginia Carcelén García